

6 mantangorri



CO

AZOKA

LIBURUA

Izenburua: 'Antzinako Greziako ipuintxo bat gauero'.**Testuak:** Juan Kruz Igerabide. **Marrazkiak:** EstibalitzJalon, Iban Izagirre, Nuria Feijoo eta Escletxa. **Orrialde****kopurua:** 394 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Aizkorri.**Juan Kruz Igerabide**

IDAZLEA

«Literaturaren ikuspegitik, liluragarriak iruditzen zaizkit istorio horiek»

Jainko eta jainkosa ugari gurtzen zituzten Aintzina-k Grezian, eta pertsonaia mitologiko mordoxka bat ere bazituzten. Ipuin, sinesmen eta istorio ugarien protagonistak dira. Hainen inguruko ipuin erakargarri eta berezie-nak bildu eta moldatu ditu Juan Kruz Igerabidek, liburutxo txiki baina lodikote honetara ekartzeko.

Antzinako Greziako ipuinak biltzen dira liburuan. Zuk idatzi edo moldatu egin dituzu?

Moldatuak, noski. Zaletasunak era-ginda, duela hamabost bat urte hasi nintzen mitologiako bertsioak euskaratzan, eta gero Ereinen irten ziren gazteentzat egokitutako batzuk (*Ulises, Metamorfosiak, Arthur erregea*); euskal mitologian ere ibili nintzen, lamien ipuinekin eta abar, Elkarrek bere garaian argitaratuak (*Amilam*). Helduentzat ere osatua dut Greziako mitoen hautaketa bat, baina ez dut argitarera eraman oraindik. Iturriak franko dira: Garcia Gual, Graves, Campbell eta beste zenbait ikertzaile. Haientzat bildu eta egokitu ditut gehien gustatu zaizkidan bertsioak.

Asko kostatu al zaizu bilketa lana egitea?

Irakurketen ondorio bat da lan hori. Propio bilduz baino gehiago, irakurtzen ari nintzena jasoz ibili naiz urtetan. Horrez gainera, sin-

bologiaren azterketa ere asko interesatu zait, eta horretan ere aritu izan naiz ikertzen, erakarmen hutsagatik (Freud, Jung, Cirlot, Von Franz...), eta haur literatura tradizionala aztertzeko oso baliagarri gertatu zait. Lan zaildu eta sistematikoa baino gehiago, beraz, irakurle baten bidean bideko hautaketa bat izan da. Bitartekotza lan bat egin dut, jakina, horrek dituen arriskuekin; baina mitoek berez duten indarrak erraz gaineratzen du bittartekotzaren oztopo hori, nik uste.

Antzinako Greziako kondaira, ipuin eta sinesmen ugari egongo dira. Zertan oinarritu zara hautaketa egiteko?

Aukeraketa erakarmen literarioaren bidez egin dut: abentura, umorea, lirikotasuna –Orfeoren istorioa zirrara garria gertatzen da, esate baterako–. Jakina, bide batez, Olinpoko jainko nagusiak eta haien ezaugarriak ager daitezten saiatu naiz, eta gero *erdi-jainkoak* deritzen horienak eta heroienak –Herakles, erromatarren Herkules, sartu dut azken putz–. Jakina, mundu hori oso-oso

zabala da, eta badira bertsio ugari; haurrentzat erakargarri izan daitezkeen istorioen aukera bat egin dut ugarterasun horren baitan.

Nolako ipuinak dira?

Mito ipuinduak, esan genezake. Mitoaren alderdi esplikatiboa labantu, eta narrazioan jarri dut arreta,



pasarteekin jolastuz. Haurrentzat gordindegia gerta zitezkeen za-tiak ezkutatu egin ditut, hel-duentzat esanguratsu gerta dai-tezkeen seinaleak utziz, elpsi bi-dez. Ez dira ipuin xaloak, keinu gaiz-toz beteak baizik, baina ahalik eta xaloen kontatzea izan da apustua.

Zergatik Antzinako Greziari buruz?

Antzinako Grezia mendebaldeko kulturaren zutabe nagusietako bat delako, euskal mitologia bera uler-tzeko ezinbesteko –mitologia zel-tikoarekin batera–. Horregatik, bada; baina, batez ere, literatura-ren ikuspegitik liluragarriak irudi-tzen zaizkidalako istorio horiek. Bestalde, haurrei dagokienez, esan daiteke maitagarrien ipuin segida bat-edo direla. Txikitán, maitagarrien ipuinak; koxkortzean, mitoak, nerabezaroko istorioen sarrera gisa.

Marrazkilari batek baino gehiagok ilustratu dituzte kontuak, ezta?

Izan ere, hasiera batean, liburu me-hetan banaturik argitaratzeko as-moa izan zen, eta marrazkilari ba-koitzari liburuxka bat eman zi-tzaiion. Gero, denak batera argitar-a-tzea erabaki zuen argitaletxeak.

Gustura zaude liburuak hartu duen itxurarekin?

Bai. Alde batetik, txikia ematen du, baina lodia da, material asko dago barruan. Liburu lasaia da irakurtzeko; iraupen luzekoa izanik ere, istorio-ak laburrak dira, ahalik eta bizien kontatuak, eta horrek kontrapisua egiten dio loditasunari.

Tamainaz txikia izanik, nonahi erabiltzeko eta noranahi eramateko liburutxoa da, ezta?

Haurak pixkana irakurtzeko auke-ra ematen du –edo gurasoak hau-rrari-. Bestalde, eskoletan, lagun-garri gerta daiteke, literaturaz go-zatzeaz gainera, mendebal-deko kulturaren oinarri batzuk ikasteko ere.